

EROSKI FUNDAZIOAK ETA BASQUE CULINARY CENTERREK BERROGEITA HAMAR SUKALDARITZA TAILER EMANGO DIZKIETE EAE-KO ETA NAFARROAKO IKASLEEI

- "Ikasgelako chefa" tailerren helburua da hurrei erakustea erosketa osasungarria eta arduratsua egiten eta sukaldaritzako errezeta erraz, dibertigarri eta osasungarriak prestatzen
- Ekimen aurrera eramateko, EROSKIk eta Basque Culinary Centerrek hitzarmen bat egina dute
- Elikadura eta Ohitura Osasungarrien Heziketa Programatik irakasleek eta ikasleek ondoena baloratzen dituzten aktibitateetako bat dira tailerrok; EROSKI Fundazioaren Elikadura Eskolak antolatzen ditu
- Bi milioi ikaslek baino gehiago parte hartu dute programan 2012tik hona

Elorrio, 2024ko urriaren 14a.- [EROSKI Fundazioak](#) eta [Basque Culinary Centerrek](#) "Ikasgelako chefa" izeneko berrogeita hamar sukaldaritzako tailerretik gora emango dituzte aurrez aurre; EAEko eta Nafarroako ikasleei emango dizkiete [EROSKI](#)ren dendetan. Helburua da hurrei erakustea erosketa osasungarria eta arduratsua egiten eta sukaldaritzako errezeta erraz, dibertigarri eta osasungarriak prestatzen.

Uztailean, EROSKIk eta BCCk berriro egin dute lehendik zuten hitzarmena. Horren bitartez, elkarrekin konprometitu dira gazteak sentibilizatzeko elikadura orekatuaren gainean baita horrek osasunarekin duen loturaren gainean ere. Era berean, dieta orekatu bat planifikatzen erakutsiko diete. Joan den ikasturtean 61 tailer eman zituzten, eta 32 ikastetxetako 1.128 ikaslek parte hartu zuten; horietatik lau heziketa bereziko ikasleei eman zizkieten.

[EROSKI Fundazioaren Elikadura Eskolak](#) Elikadura eta Ohitura Osasungarrien Heziketa Programaren barnean antolatzen dituen aktibitateetako bat dira "Ikasgelako chefa" tailerrak, eta irakasleek eta ikasleek ondoena baloratzen dituztenetako bat. "Heziketa da elikadura osasungarriagorantz egiteko eta hurrei osasun arazoak saihesteko

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



oinarria. EROSKIn, garrantzi handia ematen diegu elikadura osasungarria bultzatzen duten heziketa programei eta elikadura osasungarria sustatzeari. Horregatik ari gara ikastetxeetan, ohitura osasungarri hobek nola eraman jarraibideak zabaltzen”, adierazi du EROSKI Fundazioko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Bi milioi ikasle baino gehiago partaide

[EROSKI Fundazioaren Elikadura Eskolak](#) martxan jarri du Elikadura eta Ohitura Osasungarriei buruzko XIII. Heziketa Programa 2024-2025eko ikasturte honetan. 2012an ekin zion ibilbideari. Guztira 12 urtez azpiko 2.110.000 ikaslek parte hartu dute orain arte programan. Kopuru hori Espainiako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleen unibertso osoaren %72 da. Joan den ikasturtean, [Eskubide Sozialen eta 2030 Agendaren Ministerioaren](#) finantzaketa jaso zuten, eta 213.629 ikaslek parte hartu 2.352 ikastetxetatik etorrira.

Elikadura eta Ohitura Osasungarrien Heziketa Programako gaur egungo edukiak Espainiako ikastetxe guztietako Lehen Hezkuntzako (6-12 urte) eta Haur Hezkuntzako (3-6 urte) ikasleentzat antolatuta daude, eta hauxe da helburua: ikasleei oinarrizko formakuntza ematea elikadura orekatuaz, ohitura osasungarriez, bertako produktuez, munduko hainbat kulturatako dietez eta planetaren iraunkortasunaz. Irakasleentzat material didaktikoa eskaintzeaz gain, interakzio jolasak ditu, erronkekin eta sariekin, elikadura orekatua sustatzeko. Maila bat baino gehiago daude, zailtasunaren arabera adin tarte hauetara egokituta: 6-8 urte, 8-10 urte eta 10-12 urte. Bai ikastetxeek eta bai familiek eskura izango dituzte formatu digitalean ipuinak, jarduera esperimentalak eta sentsorialak, ikasgelarako jokoak eta familian jokatzeko modukoak, eta maila bakoitzerako berariaz diseinaturiko komikiak.

EROSKIk Osasunaren eta Iraunkortasunaren alde hartuak dituen [konpromisoetan](#) sartzen da programa, eta, haur gizentasunaren prebentzioari dagokionez, zientzialari profesionalen osatutako batzorde batek eratu du, diziplina askotakoak: medikuntza, pediatria, nutrizioa, dietetika, psikopedagogia eta pedagogia.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Aurtengo ikasturtean heziketa programan parte hartzeko interesa duten ikastetxeek webgune berrituaren bitartez egin dezakete: www.escueladealimentacion.es. Edo, bestela, energiaparacrecer@escueladealimentacion.es helbide elektronikora idatzita edo astelehenetik ostiralera 664 613 353 **telefono zenbakira deituta**, 09:00etatik 17:00etara.

Aitortza, ohitura osasungarriak sustatzeagatik

EROSKI Fundazioak elikadura osasungarriagoa sustatzeko sortu duen heziketa programak aitortza ugari izan ditu. Besteak beste, Haur Komunikazioaren Nazioarteko Jaialdiak ematen duen "[El Chupete](#)" saria, adingabeekin landutako komunikazioagatik; Osasun eta Kontsumo Ministerioak ematen duen [NAOS saria](#), kontsumitzaileen osasunaren alde eta ohitura osasungarriak sustatzeko egindako ekarpenagatik; [Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziaren Gosasun Zigilua](#); [Herritarren Saria](#) Osasunaren eta Bizi Kalitatearen arloan; [Nutrizioaren Kataluniako Zentroaren Saria](#), eta [OCARE Saria](#), "GEKeko Komunikazio Kanpainarik onena gizarte zibilarekin".

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)